

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Castejonen “Etorkizuneko ibilgailua” aurkeztu dute

*Nafarroako Gobernuak editatzen duen zientzia-dibulgazioko bildumaren titulu berria ezagutu dute Ayerdi lehendakariordeak eta Dos de mayo Eskola Publikoko ikasleek.*

Ostirala, 2018.eko azaroak 9

Castejonen, Sustapen Ekonomikoko Departamentuak editatzen duen zientzia-dibulgazioko bildumaren bigarren titulua, “Etorkizuneko ibilgailua Hemen dago!”, aurkeztu du Ayerdi lehendakariordeak. Herriko ikastetxeko 50 bat ikaslek adi entzun dute Futuf mugikortasun iraunkorraren mesedetan beren gaitasun zientifikoa jartzen duten 4 pertsonaien azken abentura.



Ayerdi, Castejoneko ikasleekin eta enpresako, udaleko eta ikastetxeko ordezkariekin.

[Aurreko urtean](#), ADINA 4 ikerketa-agentziako Clony, Renova, Java eta Foody kideek parke eoliko baten sabotajea desestali bazuten, oraingoan, beren ezagutzak bat egin dituzte planetaren baliabideak kutsatu eta kontsumituko ez dituen ibilgailu bat diseinatzeko. Erronka horretan, Rugemotors enpresaren eta Carburant anaien, bertako ingeniari adeigabeen, trabak saihestu beharko dituzte.

Vectia enpresak autobus elektriko eta hibridoak fabrikatzen ditu Trenasaren instalazioetan, Castejónen. Han egin dute liburuaren aurkezpena, eta Dos de Mayo ikastetxeko ikasleek, bisitaldian, instalazioak ere ikusi ahal izan dituzte.

Castejoneko Vectia fabrikatik bertatik ateratako autobus batean joan ziren ikastetxetik fabrikara. Bisitaldian, neska-mutilek ikasi zuten ingeniartzetan garatutako eta tailerretan zehaztutako zientzia zehatzekin energia garbiarekin mugitzen diren autobus edo ibilgailuak lor daitezkeela. Eta zientzia dibertigarria izan daitezkeela, oso baliagarria eta ez duela genero-zamarik.

Titulu berriaren 8.200 ale editatu dira kasik, gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez, eta Nafarroako ikastetxeetan banatu dituzte.

Ayerdi lehendakariak titulu berria aurkeztu die ikasleei, ikasten dibertitu eta dibertitzen ikas dezaten, "Etorkizuneko ibilgailua" lanak proposatzen dituen jarduerak osatzearen bidez.

"Dakizuenetz, diesel eta gasolina motako autoak azken urteetan asko hobetu badira ere, atmosfera-tenperatura igo eta klima-aldaketa larriak eragiten dituen gasa igortzen dute" azaldu die Ayerdik entzule gazteei. "Eta, kutsatzeaz gainera, petrolio behar dute funtzionatzeko. Baliabide hori agortzen ari da munduan eta oso garestia da hura garraiatzea eta eraldatzea".

Ayerdik ohartarazi du energia-ereduan aldaketa bat emateko urteak behar direla: "Ez itzuli etxera gurasoei esanez auto elektrikoa erosi eta zaharra bota behar dutela... ÷san du, "aldaketa pixkanakakoa izango da, enpresek gogor lan egin behar dute ibilgailu horiek fabrikatu eta lehendik daudenak hobetzeko, zama-puntu gehiago jarri behar ditugu. Horrelako aldaketa batek denbora behar du, baina ziur nago iritsiko dela".

### **Ipuina autobus bihurtuta**

Aurkezpenaren ostean, ikasleek Trenasa-Vectia fabrikako instalazioak bisitatu dituzte eta Vectiako arduradunek autobusen diseinu- eta fabrikazio-prozesuak azaldu dizkiete. Horrelako autobus batean joan dira hara.

Amaitzeko, talde-argazkia egin dute. Argazki horretan, ikasleak eta Manu Ayerdi jauna, Luis Fernández Trenasako zuzendari nagusia, Jose María Cintora Vectiako zuzendari industrialia, David Álvarez Castejóneko alkatea, Gemma Martínez Dos de Mayo HLHIko zuzendaria eta Cristina Ros Hezkuntza Saileko zinegotzia ikus ditzakegu. Gero, Udalak eskainitako otordu osasungarriaz gozatu dute.

Industria eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiak bultzatutako ekimenak talentua erakartzea du xede, eta ikasleengan bereziki diziplina zientifiko eta teknologikoekiko kuriositatea sustatzea, arlo horien alderdi ludikoa eta sortzailea bultzatuz.

Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiko langileen testuak eta Eneko Gonzálezek ilustrazioak biltzen dituen edizio honek bat egiten du [Nafarroako Energia Planean eta Klima Aldaketaren aurkako Ibilbide Orrian jasotakoarekin](#), garapen ekonomiko eta energetiko konprometitu eta iraunkor baterantz aurrera egiteko.

### **Galería de fotos**



Castejoneko ikasleak Vectiako langileek autobus elektrikoaren funtzionamenduari buruz emandako azalpenei adi.



Liburuaren azala erakusten autobus elektrikoaren barruan.



Euskarazko bertsiko liburuaren azala.